



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abuztuaren 12a

57 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Hezkuntza zentroetan izandako matrikulazio bilakaerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuak bestelako hornitzaileei erosteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Herrietako DBH ikastetxeetan Bigarren Irakaskuntzako lau ikasturteen eskaintzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Hodakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Ea Foru Komunitateko Administrazio Publikoek aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzen dituzten itauntzen duen galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Herri-larreak sortzeko dirulaguntzak emateko 97047-7 eta 97066-3 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- “Nekazaritza ustiategiaren eraginkortasuna hobetzea” lerroaren aurrekontu-burutzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Alesbes herrian kokatutako “Las Navas” lekuaren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Talde baztertuak kudeatzen dituzten enprekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Atarrabiako nekazaritza laborategiak 1996an buruturiko analisi-lanari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

F Saila:
GALDERAK

Hezkuntza zentroetan izandako matrikulazio bilakaerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak hezkuntza zentroetan izandako matrikulazio bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak sare publiko, itunpeko eta pribatuko Nafarroako ikasleen matrikulazioaren garapenari buruzko guztizko datuen gainean egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau adierazten dizu:

90-91 ikasturteari buruz ez dago datu fidagarririk, izan ere ikasturte hartantxe hartu zituelako hezkuntzako eskumenak Nafarroak.

91-92 ikasturtea

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	6.084	136	7.566	46.035	59.851
Pribatua	1.087	72	4.640	36.052	41.851
Guztira	7.171	208	12.206	82.117	101.702

92-93 ikasturtea:

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	6.551	155	7.869	43.148	57.723
Pribatua	1.539	59	4.710	34.233	40.541
Guztira	8.090	214	12.579	77.381	98.264

93-94 ikasturtea:

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	6.173	152	7.975	38.860	53.160
Pribatua	1.563	72	4.721	32.814	39.170
Guztira	7.736	224	12.696	71.674	92.330

94-95 ikasturtea:

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	7.188	128	8.658	39.924	55.898
Pribatua	1.551	79	4.672	31.389	37.691
Guztira	8.739	207	13.330	71.313	93.589

95-96 ikasturtea:

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	7.338	149	8.851	38.458	54.796
Pribatua	1.435	86	4.615	29.726	35.862
Guztira	8.773	235	13.466	68.184	90.658

96-97 ikasturtea:

Hizkuntz ereduak					
Titulartasuna	A	B	D	G	Guztira
Publikoa	7.930	124	9.284	35.915	53.253
Pribatua	1.862	89	4.806	27.722	34.479
Guztira	9.792	213	14.090	63.637	87.732

97-98 ikasturteari buruz oraingoz ez ditugu eskuratu eskatutako datuak, matrikula prozesua oraindik irekita dagoelako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuak bestelako hornitzaileei erosteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuak bestelako hornitzaileei erosteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 11ko 25. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 24a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izenpetzen duen Osasun kontseilariak, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko José María Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuak bestelako hornitzaileei erosteari buruz egindako galdera dela-eta, honako erantzun hau igortzen dizu:

Lehenbiziko sei galderei dagokienez:

Nafarroako Gobernuak ez du oinarrizko osasun zerbitzurik erosteko asmorik.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendaritzaren kudeaketa planak sintesian ondoko asmoak ditu oinarrizko osasun barruti guztietarako, eta beti ere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren berezko baliabideak erabiliz:

1. Oinarrizko Osasun Barruti guztiek eskaini behar dituzten zerbitzuak mugatzea, beti ere kalitate arau batzuk ezarritik.

2. Osasun zentro bakoitzarentzat aurrekontu bat jartzea (I., II., eta IV. kapituluak), ez bakarrik irizpide historikoak erabiliz.

3. Ekitaldi bakoitzeko osasun helburuak eta kudeaketa helburuak hitzartzea.

4. Eskurantzak Oinarrizko Osasun Laguntzako ekipoen zuzendaritzari deszentralizatzea.

5. Lortzen dituzten emaitzengatik, Oinarrizko Osasun Laguntzako ekipoak sustatzea.

Aurreko programa guztiak ez du barne hartzen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaz kanpoko inongo hornitzailearen zerbitzurik erosteko asmorik. Hori bai, planak laguntza espezializaturako eta proba osagarrietarako deribazioen baliabideak eta dagozkien kostuak Oinarrizko Osasun Barruti bakoitzari atxikitzen dizkio.

7. Nafarroako Osasun Zerbitzuaren alde bateko birformulazioa egin nahi al du Nafarroako Gobernuak?

Nafarroako Gobernuak ez du Nafarroako Osasun Sistemaren alde bateko birformulaziorik egiteko asmorik.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 5eko 31. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak B mailako irakasle funtzionarioak A mailara iristeari buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau adierazten dizu:

1.- Irakasle kontratupekoak 1996/97 ikasturtean zehar, maila eta espezialitateka:

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak guztira: 229

Maisu-maistrak guztira, espezialitatez espezialitate:

Entzumena eta Hizkuntza	
Euskara.....	5
Gaztelania.....	8
Gorputz Heziketa	
Euskara.....	14
Gaztelania.....	11
Lehen Hezkuntza Orokorra	
Euskara.....	16
Gaztelania.....	32
Frantsesa	
Euskara.....	5
Gaztelania.....	3
Ingelesa	
Euskara.....	14
Gaztelania.....	13
Sendabidezko Pedagogia	
Euskara.....	17
Gaztelania.....	28
Musika	
Euskara.....	12
Gaztelania.....	24

Matematika	
Gaztelania.....	1
Euskara.....	26

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maisu-maistrak, guztira: 61

D.B.H.ko maisu-maistrak guztira, espezialitatez espezialitate

Natur Zientziak	
Euskara.....	2
Gaztelania.....	3

Gizarte Zientziak	
Euskara.....	4
Gaztelania.....	2

Gorputz Heziketa	
Euskara.....	3
Gaztelania.....	3

Frantsesa	
Euskara.....	1
Gaztelania.....	3

Ingelesa	
Euskara.....	2
Gaztelania.....	1

Gaztelania eta Literatura	
Euskara.....	3
Gaztelania.....	2

Matematika	
Euskara.....	5
Gaztelania.....	7

Musika	
Euskara.....	1
Gaztelania.....	4

Sendabidezko Pedagogia	
Euskara.....	3
Gaztelania.....	7

Euskara	
Euskara.....	5
Euskara.....	5

Bigarren Hezkuntzako irakasleak, guztira: 438

Bigarren Hezkuntzako irakasleak guztira, espezialitatez espezialitate:

Biologia eta Geologia	
Euskara.....	5
Gaztelania.....	8

Marrazketa		Gaztelania eta Literatura	
Euskara.....	10	Euskara.....	7
Gaztelania.....	29	Gaztelania.....	26
Gorputz Heziketa		Matematika	
Euskara.....	7	Euskara.....	11
Gaztelania.....	6	Gaztelania.....	15
Filosofia		Musika	
Euskara.....	9	Euskara.....	10
Gaztelania.....	19	Gaztelania.....	8
Fisika eta Kimika		Teknologia	
Euskara.....	6	Euskara.....	11
Gaztelania.....	29	Gaztelania.....	23
Frantsesa		Euskal Hizkuntza eta Literatura	
Euskara.....	6	Euskara.....	23
Gaztelania.....	8	Alemaniera	
Geografia eta Historia		Gaztelania.....	1
Euskara.....	8		
Gaztelania.....	12		
Grekeria			
Euskara.....	2		
Gaztelania.....	1		
Ingelesa			
Euskara.....	16		
Gaztelania.....	38		
Latina			
Euskara.....	4		
Gaztelania.....	2		

2. Administrazioak eta sindikatuek 1995eko abenduaren 1ean sinatutako akordioa dela eta, ez aurtan, ez 1998an ez da lan eskaintza publikorik eginen ez Lehen Hezkuntzan, ez Bigarren Hezkuntzan.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Herrietako DBH ikastetxeetan Bigarren Irakaskuntzako lau ikasturteen eskaintzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak herrietako DBH ikastetxeetan Bigarren Irakaskuntzako lau ikasturteen eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak herrietako DBHko ikastetxeetan Bigarren Irakaskuntzako lau ikasturteen eskaintzari buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak honako hau adierazten dizu:

1. Martxoaren 13ko 150/1996 Foru Dekretuaren 5. eraskinean azaltzen diren ikastetxeek DBHko lau ikasturteak eskainiko dituzte, aurreikusita zegoen bezala.

2. Ikasleen kuporik ez dago, bai ordea unitateak. Izan duten eskaintza guztia hartzeko moduan daude ikastetxe horiek eta, gainera, ikaslea/gela ratio oso txikiekin.

Bikoizteari dagokionez, esan behar da ikastetxe bakoitzaren beharren eta egoeraren arabera eginen direla.

3. Nafarroako Hezkuntza Sistemaren ikastetxe guztien jarraipena, plangintza orokorraren ikuspe-

gitik objetiboki baloratutako eskolatzearen eskaerak zehaztuta dago. Behar diren baliabideak faktore horri lotu behar zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 19an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 5eko 31. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, hots-kutsaduratik begiratzeko Lege Aurreproiektuari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Ingurugiro Ministerioaren aipaturiko lege-aurreproiektuaren berri? Baiezkoan, noiztik?

Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektu baterako hainbat zirriborroren berri izan dugu, modu ez ofizialean, joan den urtarriletik. Aditu-talde bat ari da zirriborro hau lantzen, bertan zenbait Ministeriotako ordezkariak dihardutelarik (Ingurugiro, Industria eta Energia, Sustapen, Lan Ministerioak), hala nola Erkidego Autonomo, Udal, CSICeko Akustika Institutu eta Akustika Sozietate Espainiarrekoek. Halaber, bertan NUPeko iker-tzaile batek parte hartzen du, eta honekin Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eta Iruñeko Udalak lankidetzaz

hitzarmen bat izenpetu dute berriki hotsaren aurkako babesaren arloan.

2.- Kontsulta egin al zaio Nafarroako Gobernuari aurreproiektua egiteko garaian? Noiz aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak, halakorik egin badu, bere iruzkinak? Zeintzuk izan dira?

Gaurdaino, Ingurugiro Ministerioak ez die kontsultarik egin erkidego autonomoei aipaturiko Proiektuaren gainean.

3.- Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuari? Beharrezkotzat jotzen al du onestea?

Nafarroako Gobernuaren iritziz, hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege bat une honetan egokia eta beharrezkoa da.

Hots-kutsaduraren erregulazioak ez du gaur arte tratamendu orokorrik eduki. Gure ordenamendu juridikoan, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuaren bidez onaturiko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen Erregelamenduan arautua dago hots-kutsadura. Hala ere, arau hau hotsa jarduera gogaikarri gisa kalifikatzen da, eta hau ez dator bat gaur egun fenomeno honi buruz dagoen jarrerarekin (ikerketak zientifiko ugari oinarriturikoa), alegia, hotsa osasun eta bizi-kalitatearentzat jarduera kaltegarri jotzearekin.

Halaber, hots-kutsadura atmosfera-ingurunearen babeserako abenduaren 22ko 38/1972 Legean ere badago nolabait arautua, hots-kutsadura espreski aipatzen ez bada ere. Arauketa hauek hotsetik begiratzeko udal ordenantzak egiteko legezko babesa eskaini dute.

Beste hainbat lege, arau eta dekretuk hotsaren problematikari buruzko alderdi puntualak arautu dituzte:

a) Naturguneak eta basa fauna eta flora kontserbatzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legea, eta basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea. Hauek administrazio arau-haustetzat jotzen dute babesturiko naturguneetan edo basa fauna babesteko eremuetan espezieen lasaitasuna hautsiko duten hotsak emititzea.

b) Itsasertzei buruzko Uztailaren 28ko 22/1988 Legea, babes-zorrekotz inguruan hots bidezko publizitatea debekatzen duena (25. artikulua).

c) Emankizun publiko eta aisia-jarduerei buruzko 2816/82 Dekretua; besteak beste, jarduera hauetako polizia arautzen du, hotsari dagokionean.

d) Eraikuntzari buruzko NBE-CA 88 oinarrizko araua, eraikinen baldintza akustikoei buruzkoa.

e) Urriaren 27ko 1316/1989 Errege Dekretua, lanpostuetan hotsaren eraginpean egotetik eratorritako arriskuetatik langileak babesteko.

Aurrekotik ondorioztatzen den bezala, hots-kutsadurari buruz dagoen araudia jarduera (eraikuntza, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak) edo alde (naturguneak, itsasertzak) puntaletarako dago egina. Problematika hau orokorki tratatzeko, ordea, beharrezkoa da oinarrizko araudi bat egitea, Estatuko lurralde osoan aplikatu beharreko hots-kalitateari buruzko helburuak ezarriz, autonomi erkidegoek eta toki erakundeek maila zorrotzagoak ezartzeko (Konstituzioko 149.1.23. artikulua) duten ahalmenaren kalterik gabe.

4.-Hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko zer araubide dago indarrean Nafarroan? Nafarroako Gobernuak uste al du aipaturiko aurreproiektuak xedatu dituenek Nafarroak ingurugiro- eta hirigintza-gaietan dituen eskumenak errespetatzen dituztela?

Nafarroako Foru Komunitateak bi Foru Dekretu landu, onartu eta garatu ditu hots-emisioei aurrea hartu eta horiek zaindu eta kontrolatzeko asmoz: otsailaren 26ko 48/1987 Foru Dekretua eta ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua. Lehena derogatua geratu zen bigarrena indarrean sartzean. Hamar urte hauetan metaturiko esperientziak tresna erabilgarriak direla baieztatzen garamatza. Jakina, ez dute konpondu hots-kutsaduraren problema (ziur aski, bestelako ekintza-bideak behar dira, informazioa, hezkuntza, ikerketa eta garapena kasu), baina hots-kutsaduraren problematika

honako faseetan sartzea posible egin dute: proiektu-fasean eta bukaerako baldintza akustikoen "in situ" egiaztapenaren fasean.

Azken hamar urte hauetan metaturiko esperientzia eta epe laburrera aurreikusten den Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege proiektuaren izapidetzea bi argudio on izan daitezke aipaturiko Foru Dekretua berrikustearen komenigarritasunaren alde.

Egungo idazketa-egoeran aurreproiektuaren zirriborroak ezartzen duenez, LORAFNAK esleitzen dizkion eskumenak edukiko ditu Nafarroako Gobernuak.

5.- Nafarroako Gobernuak iruzkinik egin al dio Ingurugiro Ministerioari gure eskumenak direla eta? Aurreproiektu honek nola eragiten die Nafarroako arautegiari eta Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek hots-kutsadura egoerei aurrea hartu, haiek begiratu eta zuzentzeko burutzen dituzten jarduketak?

Oraingoz ez da iruzkinik egin, oraindik ez baitago behin betiko testurik.

Aurreproiektuaren gaur egungo idazketaren edukian oinarrituz ez da antzematen foru-araudia (135/89 Foru-Dekretua) edo Nafarroako Gobernuak zein toki-entitateek hots-kutsadura egoerei aurrea hartu, haiek begiratu eta zuzentzeko burutzen dituzten jarduketak ukituko dituen gatazkapuntu garrantzitsurik.

6.- Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du zaratari ingurugiro eta osasun aldetik aurre hartzeari buruzko Foru Legea egitea Nafarroan, Estatuko oinarrizko legedia Foru Komunitatean garatzeko? Noizko? Indarrean dauden zer foru-lege ukituko lirateke? Etxebizitzen, bulegoen, lantegien eta abarren barruan zaratari aurrea hartzeari buruzko eraikuntza-arau eta ordenantzei eragingo lieke aipaturiko Foru Legeak?

Nafarroako Gobernuak aski deritzo ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua berrikusteari, Legea eta honen erregelamendua onartu ondoren. Erregelamenduak egina egon beharko du legea argitaratetik urtebete igaro orduko.

7.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du zarataren ondorioz kutsadura sor dezaketen jarduketaren katalogoa egitea, hots-kutsadura zaintzeko sistema eratzea eta hots-kutsadura gutxitzeko foru-plana egitea, aipatzen ari garen lege-aurreproiektuak dioen bezala?

NUP eta Iruñeko Udalarekin sinaturiko Lankidetzaren Hitzarmenak beharrezko ekintzak behar bezala planifikatzea ahalbidetuko lukeen oinarriz-

ko informazioa lortzea aurreikusten du bere helburuen artean.

8.- Nafarroako Gobernuak sustatuko al ditu hirigintza-planeamendurako lotesleak izango diren hots-harmenerako guneak? Nafarroako Gobernuak esperientziarik egin al du horri buruz? Baiezkoan, zer garapen- eta balorazio-mailekin?

Xedapen hauek badaude nolabait jasoak aipaturiko 135/89 Foru Dekretuan, eta bere efektuek orokorki onespena daukate.

9.- Nola uztartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuak ezarritakoak eta indarrean den jarduera sailkatuei buruzko Foru Legeak (1989) dioena, aurreko administrazio-baimenei buruz, hots-ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzeari buruz eta arau-hauste eta zehapen-araubideari buruz? Foru-legedi horrek legegintza-aldaketa beharko al du? Zer ildotik?

Ingurugiroa babesteko sailkaturiko jardueren kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea aldatuz; eta horretarako, hainbat arauen artean, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko Europako Batasuneko 96/61/EE Zuzentaraua, 1996ko irailaren 24koa, eduki behar da gogoan.

10.- Zer irizten die Nafarroako Gobernuak gaur egunera arte egin izan ahal diren zarata-mapei, aipaturiko aurreproiektuak ere aurreikusten baititu? Nafarroako zer eskualdetan egin dira mapok eta zer ondorio atera da?

Zarata-mapak, egiazaturiko metodologia batean oinarrituz eginak, tresna erabilgarriak dira, hau guztia ahalbidetzen baitigute: gure hirietako hots-kutsaduraren maila ezagutu eta baloratzea, hots-iturriak eta beren aldagaiak identifikatzea, puntu "beltzak" detektatzea, zarata-aldagaiaren garrantzia neurtzea bizi-kalitatea aztertzean kontuan eduki beharreko elementu gisa, komunitateak zaratarekiko duen jarrera baloratzea, hala nola hots-kutsadura murrizteko hartu beharreko neurri batzuk zein neurritan onartzen diren jakitea (ikerketaren barnean populazioari egindako inkestak sartu baldin badira), hirigintza-jarduketa bat burutzerakoan hots-kutsadura behar bezain zehazki ezagutu ahal izateko zarata aurreikusteko ereduak edukitzea eta abar.

Aurreproiektuak zarata-mapak egitea aurreikusten badu ere (16-3. artikulua), mapa horiek egiteko oinarritzko arauak ezartzeari dagokionez, egiteke dagoen erregela-multzo bati lotzen zaio.

Iruñean, zarata-mapa bat egin zen 1988/1989 urteetan. Zarata-mapak egunez (08.00etatik

22.00etara) zegoen inguruneko hots-kutsadura neurtu zuen Iruñean. Metodologia (neurketa-puntuen hautaketa, neurketa-denbora ordu ezberdinetan, indizeen kalkulua eta abar) Espainiako hirietan egindako beste zarata-mapa batzuetan erabilitako berbera izan zen, eta honako hauek barne hartzen ditu: maiztasun-histograma eta histograma meta-tua, emaitza grafikoak auzoz auzo, inkesta-galderen erantzuna, aurreikuspen-formula eta abar.

Une honetan, mapa gaurkotzen dihardute, gaueko zarata ere barne hartuz, eta gaurkotze horretan herri mugakideak sartzeaz gain, industrialdeen eta Noaingo aireportuak sorturiko aire-trafikoaren eragina aztertzen da.

Lanak 1998ko urtarrilean amaituko direla aurreikusten da.

11.- Nafarroako Gobernuak erabilgarri irizten al die Ingurugiro Ministerioak egin duen hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuak dakartzan hots-babes bereziko guneei, egoera bereziko guneei edo berez sortzen diren zaratak babesteko gune isilei? Nafarroan ba al da antzeko esperientziarik?

Figura hauek erabilgarriak izan litezke hainbat kasutan, baina ez daukagu balorazio zehatzago bat egiteko moduko esperientzia edo erreferentziarik.

12.- Nola eragin diezaioke Ingurugiro Ministerioaren lege-aurreproiektuaren onarpenak Nafarroako toki-entitateen hirigintza-planeamenduari?

Hirigintza Antolaketarako Udal Planek Legeak ezarritako irizpideak kontuan eduki beharko dituzte, hirigintza-legediak ezarriko arauari jarraituz.

13.- Ingurugiro Ministerioa dela eta, zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak egun indarrean diren arauak gure Komunitateak gaiotan dituen eskumenen ikuspuntutik egokitzeke?

Lehen aipatu dugunez, Ingurugiroa babesteko sailkaturiko jardueren kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legea legegintzaldi honetan aldatzea aurreikusten du Nafarroako Gobernuak, eta, beharrezkoa izanez gero, zarata edo dardarak ematen dituzten jarduerak bete beharko dituzten baldintza teknikoak ezartzen dituen ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretua ere.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 20a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Hodakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hodakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 5eko 31. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Hondakinen gaineko Oinarrizko Legearen Aurreproiektuari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Ingurugiro Ministerioaren aipaturiko lege-aurreproiektuaren berri? Baiezkoan, noiztik?

Nafarroako Gobernuak badu Hondakinen gaineko Oinarrizko Legearen Aurreproiektuaren berri; 1996ko abenduaren 16ko Ingurugiroari buruzko Batzar Sektorialean aurkeztu zuen Ingurugiro Ministerioak.

Berriki, aldaturiko zirriborro bat jaso da, apirilaren 15eko data duena.

2.- Kontsulta egin al zaio Nafarroako Gobernuari aurreproiektua egiteko garaian? Noiz aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak, halakorik egin badu, bere iruzkinak? Zeintzuk izan dira?

Joan den urtarrilean egin zitzaion kontsulta Nafarroako Gobernuari, eta urtarrilaren 23ko data-rekin, jarraian testualki azaltzen diren aurreproiektuari buruzko iruzkinak igorri ziren:

"a) 1.2. artikulua. Artikuluak Gobernuaren aldeko erabateko deslegeztatpena proposatzen du hondakinen arloan, erregelamendu-bidea erabiliz. Hondakin-mota bat erregelamendu batek legeak ezarritakotik kanpo erregula dezan uzten du nolabait arauak; honek gehiegizkoa eta lege bereko 1.1 eta 2.1. artikuluekin kontraesanean dagoela dirudi. Hortaz, 2. zenbaki osoa ezabatzea edo aldatzea proposatzen dugu, araua "relativas a su

producción o gestión" espresioaren atzean buka dadin.

b) 3.1.a) artikulua. "Hondakina" honela definitzea proposatzen da: "Berari uko eginez, edukitzaileak utzi edo uzteko asmo edo obligazioa duen edozein sustantzia edo objektu, Europako Batasuneko erakundeek horretarako onartuko duten zerrendan jasota aurkitzen dena".

Proposaturiko idazkerak teknika juridiko hobeago agertzen duela uste dugu, egintza administratiboa diren eta denboran zehar ordeztuak edo aldatuak izan daitezkeen Europako Batzordearen erabaki zehatzak aipatzen ez dituelako. Legearen idazkerak orokorrago eta abstraktuago behar du izan, beste Administrazioetako egintza edo xedapen zehatzak petrifikatu gabe.

c) 3.1.b) artikulua. Bigarren lerroan zera gehitzea proposatzen da: "hala nola toxiko edo arriskutsutzat jotzen ez diren hondakinak, honako jardura hauen ondorio gisa sortuak...". Badaude arriskutsuak eta toxikoak diren osasun- eta ospitale-hondakinak, hala kalifikaturikoak.

d) 3.1.e.) artikulua. "(Hasierako produktorea)" parentesia ezabatzea proposatzen da, eta letraren bukaeran, puntu eta jarraian, zera gehitzea:

"Pertsona fisiko edo juridiko batek hondakinak ekoizten baldin baditu tratatu edo beren izaera edo osaera aldatu aurretik, pertsona horri "hasierako ekoizle" deituko zaio."

Proiektuari idazketa tekniko hobeago ematen zaio, lege bateko artikulua-multzoan parentesia ipintzea ez baita egokia.

e) 3.1. artikulua, i) eta k) hizkiak. b) iruzkinean aipaturiko teknika juridikoko arazoak direla-eta, Batzordearen erabaki zehatzen aipamena ezabatzea proposatzen da.

f) 3.1. artikulua, o) hizkia. Estetikari eta irudiari dagozkien arazoak direla-eta, batetik; eta izendapen soilak sorturiko gizarte-gatazka ekiditearren, bestetik, "hondakindegij"ren ordez "gordetegi" erabiltzea eta berau honela definitzea proposatzen da: "lurrazalean edo lurrazpian hondakinak kontrolpean gordetzeko erabiltzen den instalazioa".

g) 5.4. artikulua. "Eta planta eta instalazioen kokapena" dioen azken paragrafoaren ordez honako hau ipintzea proposatzen da: "eta planta eta instalazioak ezartzeko irizpideak". Honen hel-

burua gizarte-gatazkak ekiditea da. Egoki den administrazio-prozeduraren bitartez finkatuko da planta edo instalazioaren kokapen zehatza, kontuan izandako aukeren azterketarekin batera.

h) 6. artikulua. Ezabatua izan dadila proposatzen da, begi-bistako edukia duelako.

i) 9.2. artikulua. "Gobernua"ren ordean "Administrazio Publikoak" espresioa erabiltzea proposatzen da, idazkera honek errespetu haundiagoa agertzen baitu autonomi erkidego eta toki entitate-ekiko.

j) 15. artikulua. Ondoko testua izango duen "1 bis" puntua gehitzea proposatzen da:

"Autonomi erkidegoek, Lege bidez, haien eskumeneko hainbat hondakinen kudeaketa haien titularitateko zerbitzu publiko deklaratu ahal izango dute".

Idazkera honekin, beren eskumeneko hainbat hondakinen kudeaketa (adibidez, pilak, industria-olio erabiliak, hozkailuak edo klorofluorokarbonoak, fluoreszenteak eta merkurio-lurrinezko argiak dituzten aparatuak, sendagaiak eta abar) autonomi erkidegoek zerbitzu publiko deklaratu ahal izatea posible egiten da, zerbitzu publikoen kudeaketarako legediak aurreikusirik formulatutako ekimenak erabiliz.

Horixe aurreikusten du lege autonomikoren batek, Kataluniako uztailaren 15eko 6/1993 Legeak kasu.

Honela, hondakin guztien kudeaketa-sistema osoa ez da hirugarrenentzako baimenetara mugatzen.

k) 15.2. artikulua. Artikuluaren irispena argitzea proposatzen da, honako paragrafoa gehituz: "Toki entitateek beren eskumeneko hondakinak deuseztatzea erabakitzen baldin badute, dagokion plan kudeatzailearekiko egokitzapenari eta zerbitzu horiek burutzen diren instalazioen egokitasunari buruzkoa izango da autonomi erkidegoen baimena".

l) 21. artikulua. Buruhauste gehien ematen duten zirriborroko artikuluetako bat da, ekar ditzakeen inplikazio juridiko eta praktikoak direla-eta.

1. zenbakia hain gatazkatsua ez den eta errealitate sozialera egokituagoa den idazkera batekin ordeztea proposatzen da:

"Lurralde nazionalean egindako hondakin-deuseztapena hurbiltasun printzipioaren arabera egingo da, ahal den neurrian".

2. zenbakia honako idazkera ez hain gatazkatsuen bidez ordeztea proposatzen da:

"Autonomi erkidego bakoitzak bere hondakinak kudeatzeko zentroen eraikuntza sustatuko du bere lurraldean.

Hala eta guztiz ere, autonomi erkidegoek lankidetzaren bitartez sinatu ahal izango dituzte euren artean, batean sorturiko eta bestean hartutako hondakinak kudeatzeko."

Aipaturiko arrazoiak direla-eta, 3. zenbakia ezabatzea proposatzen da.

m) 24.2. artikulua. Bukaeran zera eranstea proposatzen da: "Aldizka, balorizazioa beharrezko egiten duten hondakin kopuru-mugak ezarriko dira".

n) 27. artikulua. Hondakinen Ingurugiro Fonda ere oso problematikoa izan daiteke, eta berau eratzearen egokitasuna zalantzarik da.

Benetako Fonda Estatuko Aurrekontu Orokorra izan beharko luke. Bertan kutxa-batasun printzipioa aplikatzen da. Ekonomia eta Ogasun Ministerioa hura eratzearen kontra egon liteke, aipaturiko kutxa-batasun printzipioa urratu egingo litzatekeelako.

Noren menpean egongo den, bere funtzioak edo Fondaaren banaketa-irizpideak zeintzuk diren ere ez da argi geratzen.

ñ) 28. artikulua. Zerga hau sortzeak hiru problema dakartza:

– Zerga finalista bat da, Ekonomia eta Ogasun Ministeriotik kanpo sortu eta kudeatzen dena, horrek dakartzan arazoekin.

– Estatu-zerga bat da, eta honek ondoko paradoxa hau sortzen du: hondakinak autonomi erkidegoek kudeatzen dituzte, baina zerga Estatuko Administrazioak eskuratu eta kudeatzen du, hondakinak kudeatzen ez dituen arren.

– Nafarroari dagokionez, haren arauak eta kudeaketa, hura sortzekotan, Nafarroako Foru Komunitatearen ardura litzateke, zerga-ahalmena Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak aitortzen eta babesten dituen eskubide historikoetan oinarritua baita. Gauza bera gertatuko litzateke Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoekin. Horrek guztiak Erkidego Historikoekin beharrezkoa den zerga-harmonizazioa egitea galdatzen du, beste zenbait zergarekin jazotzen den bezala.

Nafar eta euskal zerga-araubidea errespetatu egin behar da, zerga hauei dagokienez, Legezirriborroaren xedapen gehigarri batean, edo, bestela, 30. artikuluan, honen idazkerari bigarren paragrafo bat gehituz, honako edukiarekin:

“Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa Euskal Herriko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dauden kontzertu eta hitzarmen ekonomikoen (hurrenez hurren) forujatorriko zerga-araubidearen kalterik gabe ulertuko da”.

o) 46.1. artikulua. Honako idazkera hau proposatzen da, autonomi erkidegoen eskumenekin gatazka gutxiago eragiten duena:

“autonomi erkidegoek “kutsatu” kalifikazioa duten lursailak deklaratu eta mugatuko dituzte, eta haien inbentarioa egingo dute, helburu horrekin Ingurugiro Ministerioarekin batera ezarriko dituzten irizpideetan oinarrituz, eta...”.

p) 46.2. artikulua. Artikulu hau oso zaila da praktikara eramaten, eta osasun publikorako edo ingurugirorako arriskutsuak diren produktuekin kutsaturiko lursailak birgaitzeko borondatea antzutu egin dezake. Zehaztea autonomi erkidegoek eta titularrek sinaturiko hitzarmenetan egin dadin utzi beharko litzateke; hitzarmen horietan ezarriko dira gainbalioak berreskuratzeko asmo hau praktikara eramateko bitartekoak.

q) 46. artikulua. Altxor publikoan defizita sortuko balu ere, jabearen kontura edo osasun publiko zein ingurugirorako arriskua edo premia baldin balego Administrazioak lursail kutsatuaren jabearen ordezkari jarraitzeko legezko ahalmena aurreikusi beharko litzateke. Halaber, kasu jakin batzuetan lursail hauek desjabetzeko ahalmena aurreikusi beharko litzateke, beharrezko diren deskontaminazio-eragiketaren kostu estimatua balio justutik kenduz.

r) 48.etik 51.era bitarteko artikulua. V. Tituluko II. Kapituluako 3. Atalari (48.etik 51.era bitarteko artikulua) autonomi legedirik ez dagoen kasuetan aplikatu beharreko ordezkari legediaren izaera ematea proposatzen da, horrela Autonomi Erkidegoek alde aurretik hondakinei buruz onarturiko lege orokor edo zehatzekin (adibidez, Kataluniaren kasua edo Nafarroarena -irailaren 20ko 13/1994 Foru Legea, hondakin bereziak kudeatzeko-) gatazka juridikorik sor ez dadin eta lege hauek berrikustera ere behartu ez dadin.

s) 52.1. artikulua. “Administrazio publikoak”en ordezkari “Administrazio Publiko eskuduna” jartzea proposatzen da, juridikoki zehatzagoa izateagatik eta sor litezkeen interpretazio-zalantzak ekiditeagatik.

t) 56.etik 59.era bitarteko artikulua. Beren edukia, hondakinei buruzko lege berezi bati baino, hobeto egokitzen zaie lege orokorrei. Beharbada, Guztientako Administrazio Prozedurari buruzko

30/1992 Legearen erregelamendu bidezko garapen baterako utzi beharko litzateke, Administrazio Publikoko alor guztietara hedatuz.

u) Lehenengo xedapen gehigarria. Ezabatua izan dadila proposatzen da, hirigintza-planeamenduen edukirako gehiegizkoa dela jotzeagatik. Planeamendu horren azkartzea, bai edukiaren bai prozeduraren aldetik, administrazio-legediaren lehentasunezko helburuetako bat izan beharko litzateke. Bestalde, eduki hau ez duten hirigintza-planen deuseztagarritasuna deklaratzeko aukera sortzen da.

Horretarako, honako idazkera alternatiboa proposatzen da:

“Eskudun diren administrazio publikoek programa berezi bat onartuko dute. Hondakinak bildu edo entregatzeko obligazioak behar bezala bete ahal izateko beharrezkoak diren ekipo eta edukiontzia ipintzeko egoki diren aurreikuspenak edukiko ditu programa honek”.

v) Hirugarren xedapen gehigarria. Kode Zibilak xedatutakora igorritik beren erabilera partikular eskusibora zuzenduriko lursail kutsatu baten titular diren pertsona fisikoaren alde salbuespen hau egitearen arrazoia ez dira ongi ulertzen.

w) Laugarren xedapen gehigarria. n) hizkian (28. artikulua) egindako iruzkinean azaldutakoarekin bat, honako idazkera hau proposatzen da, Nafarroako zerga-erantzaren errespetatzen duena:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 45.2 artikulua araberak, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio Lege honetan ezarritako Deusezturiko Hondakinen Gaineko Zerga arautu eta ordainaraztea”.

x) Bigarren azken xedapena, 1. zenbakia. Honako idazkera hau proposatzen da, ingurugiro arloan Estatuko oinarritzko legedia lege eta erregelamendu bidez garatzeko autonomi erkidegoek daukaten eskumenari errespetu haundiagoa diona:

“Estatuko oinarritzko legedia garatu eta burutzeko autonomi erkidegoek daukaten eskumeneren kalterik gabe, Gobernuari Lege hau erregelamendu bidez bere eskumeneren arloan garatzeko ahalmena ematen zaio”.

y) Bigarren azken xedapena, 2. zenbakia. Ezabatua izan dadila proposatzen da, beharrezkoa ez izateagatik, ahalmen hau Legeko beste artikulua batzuetan ezarria dagoela eta Europako Batasuneko zuzenbidetik eratorria dela ulertu behar baita.

z) Hirugarren azken xedapena. Indarrean beranduago sar litezkeen hainbat kuestio bereiztu beharko lirateke; bereziki, Deusezturiko Hondakinen Gaineko Zergari dagozkionak. Horrela, komenigarria litzateke urteroko data bat finkatzea (1998ko edo 1999ko urtarrilaren 1a)”.

Aurreproiektu honi egin dizkiogun iruzkinak honaino iristen dira.

Honetaz gain, apirilaren 29an Ingurugiro Ministerioako Kalitate eta Ingurugiro Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusiarekin eta gainerako autonomi erkidegoekin egindako bileran, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak gai honi buruz dituen irizpideak jakinarazi ziren.

3.- Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak hondakinei buruzko oinarritzko lege aurreproiektuari? Beharrezkotzat jotzen al du onestea?

Europako Batasunaren gai honi buruzko xedapenak gureganatuko dituen hondakinei buruzko oinarritzko Lege bat onestea komenigarritzat jotzen da.

4.- Hondakinei buruzko oinarritzko legearen aurreproiektuak ukitzen dituen gaiei buruzko zer araubide dago indarrean Nafarroan? Nafarroako Gobernuak uste al du aipaturiko aurreproiektuak xedatu dituenek Nafarroak ingurugiro- eta ekologigaietan dituen eskumenak errespetatzen dituztela?

Nafarroak ez dauka hondakinei buruzko marko-legedirik. Nafarroak berea duen legedia hondakin berezien arloan (13/1994 Foru Legea) eta osasun-hondakinenean (296/93 eta 181/94 Foru Dekretuak) bakarrik egin du.

Aurreproiektuak errespetatu egiten ditu Nafarroaren eskumenak ingurugiro-arloan.

5.- Nafarroako Gobernuak iruzkinik egin al dio Ingurugiro Ministerioari gure eskumenak direla eta? Aurreproiektu honek nola eragiten dio Nafarroako arautegiari eta Nafarroako Gobernuak eta toki-entitateek hiri-hondakin solido, geldo, sanitario edo arriskugarriak planifikatu eta kudeatzeko burutzen dituzten jarduketei? Hondakinei buruzko oinarritzko legearen aurreproiektuak nola eragiten die Nafarroako Gobernuak lurzoru kutsatuak bereoneratzeko sustatzen dituen jarduketei?

Aurreproiektua oinarritzko legedi izaerakoa da; beraz, hondakinen ekoizpena eta kudeaketa zein arau-marko orokorretan burutu behar den ezartzen du. Gai honetan Nafarroak duen eskumena aurreproiektuaren testuan bermatua dago. Tradi-

zionalki, hiri-hondakin solidoen arloan eskumena toki entitateek erabili izan dute.

Hondakin-mota desberdinei dagokienez Nafarroan sustatzen diren jarduketei buruz, etorkizunean egin daitezkeen planek, zalantzarik gabe, Legeak ezarritako irizpideak jaso beharko dituzte. Dena den, azken urteotan hondakinen plangintza eta kudeaketaren inguruan burutzen ari diren jarduketek gai honi buruz Europako Batasunak atera dituen xedapenetan ezarritako irizpideak jasotzen dituzte. Azken hauek Aurreproiektuaren bidez bereganatuko ditu espainiar legediak.

Lursail kutsatuei dagokienez, gaur egun Nafarroako Gobernuak potentzialki kutsaturiko lursailen inbentario bat prestatzen ari da, eta etorkizuneko jarduketak aurreproiektuak adierazi bezala burutuko dira.

6.- Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du hondakinei buruzko foru-legea egitea Foru Komunitatearentzako, Estatuko oinarritzko legedia Nafarroan garatzeko? Zer epetan? Indarrean dauden zer foru-lege ukituko lirateke?

Ez da beharrezkotzat jotzen hondakinei buruzko Foru Legerik egitea.

7.- Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak “hondakinak sortu edo haien arriskua mugatzeko eskueran diren hobekuntza teknikoak aplikatzeko”, aipaturiko lege-proiektuko artikuluek diotenaren arabera?

Hondakin berezien sorrera edo haien arriskua mugatzeko Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriak Hondakin Berezien Kudeaketarako Planean jasotzen dira.

Hiri-hondakin solidoei dagokienez, egoki diren neurriak urtebeteko epean egingo den Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailearen berrikuspenean jasoko dira.

8.- Nafarroako Gobernuak egoki irizten al dio hondakin jakin batzuen kudeaketa bere gain bakarrik hartzeari? Zer eskarmentu dago beste autonomi erkidego batzuetan? Hondakin jakin batzuetarako lege bereziak egiteko asmoa al du Nafarroako Gobernuak, hala nola erabilitako olio, pila eta abarrentzako, lege horietatik Nafarroako Gobernuak oraintsu sortu duen hondakinen enpresa publikoaren jarduna eta garapena bultzatuz?

Legez, Nafarroako Gobernuari ez dagokio ez ein hondakin kudeatzeko ardura; udalerriei, aitzitik, bilketa, garraioa eta, hala bada, hiri-hondakin solidoen trataera zerbitzuak burutzeko bete-

beharra ezartzen diete egungo legediak eta aurreproiektuak.

Gainontzeko hondakinei dagokienez, ekimen pribatuak haien kudeaketa bere gain hartzea egoki jotzen da, arau orokor gisa. Hala ere, arrazoi ekonomikoak direla-eta, edo kudeaketan ingurugiro-kalitate hobea lortzearen Nafarroako Gobernuaren eskuhartzea beharrezkoa denean, komenigarri jotzen da, orduan bai, kudeaketa-sistema publiko edo mistoak sustatzea, kasu bakoitzean aztertu beharko liratekeenak. Hondakin bereziei dagokienez, aukera hau "Navarra de Medio Ambiente Industrial" enpresa publikoaren eraketa eragin zuen 13/1994 Foru Legean jasotzen da.

9.-Hondakinei buruzko oinarrizko legearen aurreproiektuko 12. artikulua araberak: "autonomi-erkidegoei debekatu egiten zaie Estatuko lurraldean, lurralde hartan kokatutako zentroetan eta haiek baimenduta, ekoiztu den edozein motako hondakin hartzeari uko egitea". Nafarroako Gobernuak egokitzat jotzen al du aipaturiko artikulua idazteko modua? Onartzen baldin bada, zer ondorio izan dezake artikulua horren aplikazioak Nafarroan?

Lege aurreproiektuak, bere azken bertsioan, ahalmena ematen dio Autonomi Erkidegoari Estatuko lurraldean ekoizturiko eta berak baimendutako edozein motako hondakin bere lurraldean kokatutako zentroetan hartzeari uko egiteko, baldintza hauetakoren bat betetzen denean:

a) Zentro horiek instalazio egokirik ez edukitzea eta, argi eta garbi, ezta hondakinak gorde, balorizatu edo deusezteko beharrezkoa den ahalmenik ere.

b) Erabilera dokumentuek azaldutakotik desbideratu izanaren arrasto arrazionalak existitzea.

c) Autonomi edo estatu mailako planak aurreikusitako biltegitratze-, balorizazio- edo deuseztapen-portzentaiak betetzea ezinezkoa gertatzea beste Autonomi Erkidego bateko hondakinak jasoz gero.

d) Planta hartzailea titularitate publikokoa izatea, edo, autonomi eta estatu mailako hondakin-planetan sarturiko hondakinen zati definitu bat kudeatzeak sortutako beharrezko aurre egiteko asmoz haren eraikuntzaren edo kudeaketaren zati bat fondo publikoekin ordaindua izatea. Uko egiteko arrazoi hau hondakinak toki-entitateen titularitateko edo beraiek finantzaturako balorizazio- edo deuseztapen-planetara eramaten direnean ere (inoiz eramango baldin badira) aplikatu ahal izango da.

Aipaturiko artikulua edukia baldintza hauekin kontsideratzen da egoki.

Beste zenbait autonomi erkidegok beren lurraldean sartzeari eragotziko baliete Nafarroako hondakinei, sektorerik kaltetuena hondakin arriskuetsuena izango litzateke, sektore honetako hondakin gehienak Nafarroatik kanpo tratatzen baitira. Aitzitik, nagusiki bereonertzeko eta balorizatzeko ekartzen dira beste erkidegoetako hondakinak Nafarroara; horregatik, hauei sartzeari eragozteak ekarriko lituzkeen ondorioak sektoreko industriekin batera (galdategiak, paper-fabrikak eta abar) aztertu beharko lirateke.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 15a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ea Foru Komunitateko Administrazio Publikoek aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzen dituzten itauntzen duen galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ea Foru Komunitateko Administrazio Publikoek aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzen dituzten itauntzen duen galdetu zuen. Erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-

lean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako administrazio publikoek aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari Jaunak Parlamentuan eginiko galderari ihardetsiz, honako hau jakinarazten da, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean:

1.- Nafarroako Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzera jo al dute jarduera edo kontratazioen bat egiteko?

Modu orokorrean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (organismo autonomo eta sozietate publikoak barne) ez du aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabiltzera jo, Departamentu ezberdinek eskaini dituzten datuen arabera.

Hala ere, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak (Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari atxikitako organismo autonomo horrek, hain zuzen) koiunturakoak eta aparteko izaerakoak diren arrazoiak direla-eta, erakundemota honetara jo behar izan duela adierazten du.

2.- Aldi baterako lanerako enpresei kontratatu zaizkien zerrenda eskatzen da, departamentu, erakunde autonomo edo enpresa publikoka, hurrengoak aipatuz: zer enpresaren bitartez burutu den kontratazioa, eskatutako lanaren edo langile-motaren helburu eta zereginak, sartutako langileen kopurua, eskatutako zerbitzu-emanaldiaren iraupena eta haren kostua.

A) Aurreko atalean esan den bezala, aipaturiko organismo autonomoak aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak erabili behar izan ditu, honako zentro eta egoitzetan:

– Iruñeko Guelbenzu Aisialdirako Zentroan.

– Iruñeko "Fuerte del Príncipe" Gazte Egoitzan.

– Altsasuko "Santo Cristo de Otadia" Gazte Egoitzan.

Zentro hauetan egindako zerbitzu hauen erabilerari buruzko datuak honako hauek dira:

a) Iruñeko Guelbenzu Aisialdirako Zentroa:

1997ko urtarriletik apirilera epean 16 eskurajartze-kontratu egin dira "Gester" enpresarekin garbiketa eta erabiltzailearentzako arreta zerbitzuak emateko. Kopuruz, bi langile aritu dira zerbitzuak ematen. Kontratuen batezbesteko iraupena 2,5 egun izan da, eta 40 egunerako kostua (14

egun urtarilean, 12 egun otsailean, 11 egun martxoan eta 3 egun apirilean), guztira, 576.219 pezeta.

b) Iruñeko "Fuerte del Príncipe" Gazte Egoitza:

1997ko urtarriletik apirilera epean 30 eskurajartze-kontratu egin dira. Hauetatik 5 "Alta Gestión" enpresarekin sinatu dira, bat "Gester" enpresarekin, eta 24 "Iruñampleo" enpresarekin, harrera-zerbitzua, garbiketa-zerbitzua edo biak emateko. Zerbitzuak ematen aritu diren langileak kopuruz 11 izan dira. Kontratuen batezbesteko iraupena 2,6 egun izan da, eta kostu osoa 977.173 pezeta izan da, guztira 78 egunerako (9 egun urtarilean, 15 egun otsailean, 36 egun martxoan eta 18 egun apirilean).

c) Altsasuko "Santo Cristo de Otadia" Gazte Egoitza:

1997ko urtarriletik apirilera bitarteko epean 35 eskurajartze-kontratu egin dira "Iruñampleo" enpresarekin, garbiketa, harrera, sukalde, garbiketa eta harrera eta garbiketa eta atezaintza zerbitzuak emateko. Zerbitzu-emate honetan aritu diren langileak kopuruz bost izan dira. Kontratuen batezbesteko iraupena 1,7 egun izan da, eta kostua guztira 757.646 pezeta izan da, dena 59 eguneko epe baterako (8 egun urtarilean, 31 egun otsailean, 19 egun martxoan eta egun bat apirilean).

B) Sozietate publikoei dagokienez, honako hauek erabili dituzte aldi baterako lanerako enpresen zerbitzuak, departamentu ezberdinek eskainitako datuen arabera:

– Riegos de Navarra, S.A. (Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari atxikia).

– Magnesitas de Navarra, S.A. (Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari atxikia).

– Fundiciones de Vera, S.A. (Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari atxikia).

Aipaturiko sozietate publikoek egindako zerbitzu hauen erabilerari buruzko datuak honako hauek dira:

a) Riegos de Navarra, S.A.:

Eskurajartze-kontratu bakar bat sinatu du, "Adia Intergrup" enpresarekin, administrazio laguntzaile zerbitzua lanaldi partzialean egiteko (eguneko bost ordu). Kontratuak 1995eko irailaren 11tik 30era arte iraun du, guztira 105.183 pezeta-kostu batekin.

b) Magnesitas de Navarra, S.A.:

1994. urtearen bukaeran eta 1995.aren hasieran bakarrik erabili ditu aldi baterako lanerako enpresak. Erabilera hau noizbehinkakoa eta garrantzirik gabekoa izan da. 1996an zehar ez du enpresa mota hau erabili.

c) Fundiciones de Vera, S.A.:

Aldi baterako lanerako enpresen erabilpen noizbehinkako eta garrantzirik gabekoa egin dute

hemen ere. 1994ko urria eta 1997ko apirilaren arteko epean 19 langilek eman dituzte zerbitzuak, guztira 3.008 orduz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 23a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurra Indurain

Herri-larreak sortzeko dirulaguntzak emateko 97047-7 eta 97066-3 lerroen aurrekontu-burutzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak herri-larreak sortzeko dirulaguntzak emateko 97047-7 eta 97066-3 lerroen aurrekontu-burutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean, herri-larreak sortzeko dirulaguntzak emateko 97047-7 eta 97066-3 lerroen aurrekontu-burutzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak, erantsitako dokumentazioan datorren txostena egin du.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

1. Baimendutako gastua. 1997ko maiatzak 9.

Lerroa: 97047/7 180.426.855 pta.

Lerroa: 97066/3 18.362.785 pta.

2. Baimendutako gastu honekin konprometitutako proiektuen zerrenda.

Lerroa: 97047/7 bihurtutako proiektuak. 1996/97

5b Helburuko Eskualdea. 1997. urtea.

Herria	Aurrekontua	Dirulag.
Garaioa	11.489.548	10.340.593
Hiriberri (Artzibar)	6.874.165	6.186.748
*Ultzama	6.120.794	5.508.715
Narkue (Lanaibar)	6.261.840	5.635.656
Zaragueta (Artzibar)	4.721.800	4.249.620
Orondritz (Erroibar)	1.799.240	1.619.316
Auritz	8.132.449	7.319.204
Azparren (Artzibar)	6.078.806	5.470.925
Saldise (Ollaran)	3.105.204	2.794.684
*Itzalle (Galoze)	16.693.830	15.024.447
*Larraona	1.609.468	1.448.521
Abartzuza	9.585.683	8.627.115
Viana	6.219.800	5.597.820
Zaraitzuko Batzarra	18.583.973	16.725.576
Izize (Galoze)	4.890.000	4.401.000
Etaiu	1.621.288	1.459.160
Izurtzu (Gesalatz)	2.367.280	2.130.552
*Oskotz (Imotz)	4.133.208	3.719.887
Gembe (Gesalatz)	3.597.204	3.237.484
Eguaras (Atetz)	7.438.674	6.694.807
Ustaize (Nabaskoze)	1.317.200	1.185.480
Olabe (Olaibar)	4.426.560	3.983.904
Urdanotz (Goñi)	6.974.500	6.277.050
Ultzurrun (Ollaran)	7.660.220	6.894.198
*Bakedano	2.320.000	2.088.000
Ziganda (Atetz)	3.304.936	2.974.442
Nazar	7.384.528	6.646.075

Goldaratz (Imotz)	11.927.339	10.734.605
Baztan	10.691.026	9.621.923
Otsakain (Olaibar)	8.916.440	8.024.796
*Barindano (Ameskoab.)	4.227.280	3.804.552
Guztira (31)	200.474.283	180.426.855

* Bukatuak eta pagatuak, amaierako likidazioa eta guzti.-

Burutzeko bidean oso aurreratutako dauden gainerako proiektuak, amaierako likidazioak egin gabe dituztenak.

Baimendutako gastu honekin konprometitutako proiektuak.

Lerroa: 97066/3. Biurteko proiektuak. 1996/97.

2 Helburuko Eskualdea. 1997. urtea.

Herria	Aurrekontua	Dirulagunt.
Nuin (Xulapain)	5.679.347	4.543.478
Lizoain	5.776.800	4.621.440
Izko (Ibargoiti)	6.020.934	4.816.747
Aristregi (Xulapain)	5.476.400	4.381.120
Guztira (4)	22.953.481	18.362.785

Burutzeko bidean oso aurrerata dauden proiektuak, amaierako likidazioak egin gabe dituztenak.-

5b Helburuko Eskualdea

Larre Bulegoan jaso diren eskabideak, 1996ko abendura arte aurkeztutakoak berresten edo aldatzen dituztenak.

Izena	Gaia
– Aburregaina	Larreak hobetzea
– Aburrepea	Larreak hobetzea
– Oibar	Larreak hobetzea
– Allin	
– Aramendia	Aintzira-Ur kondukzioa
– Etxabarri	Larreak hobetzea
– Zubiarki	Larreak hobetzea
– Ameskoabarren	
– San Martin	Larreak hobetzea
– Anue	
– Egozkue	Larreak hobetzea
– Aranaratxe	Larreak hobetzea
– Artzibar	
– Arizkuren	Ixtea
– Uliberri	Ixtea
	Ur hartunea

Proiektu bat

– Arrieta	Larreak hobetzea
– Lakabe	Itxiturak
	Askak
– Uritz	Mugak
– Arellano	2 aintzira
– Arronitz	Itxitura
– Atetz	
– Beuntza	Larreak hobetzea
	Esola
– Barasoain	Aintzira
– Basaburua	
– Itsaso	Sarbidea (Egokitzea)
– Auritz	Larreak hobetzea
– Castejón	Ur-hartunea
– Deikaztelu	Hesiak jartzea
– Erroibar.	Larreak hobetzea
– Mezkiritz	Ixtea
– Erroibar-Zilbeti	Ixtea
	Aziendarako tratamendu- eskorta
	Sarbideak (Hobetzea)
– Ezkabarte	
– Eusa	Larreak hobetzea
– Galoze	
– Izize	Langa kanadiarra
– Itzalle	Larreak hobetzea
– Uskartze	Larreak sortzea
– Garralda	Larreak hobetzea
– Goñi	
– Aizpun	Larreak hobetzea
** Azantza	Aintzira
	Aska
– Goñi	Alanbradak konpontzea
– Munarritz	Larreak hobetzea
– Urdanotz	Larreak hobetzea
– Gortza	
** Gortza	Larreak hobetzea
– Igari	Larreak sortzea
– Gesalatz	
– Argiñano	Larreak
	– Sarbidea
	– Garbitzea
	Hesia
	Aziendarako tratamendu- eskorta
	Aintzira
	– Eraikitzea
	– Konpontzea
– Gembe	Larreak hobetzea
– Muniain	Aintzira, aska, e.a.
– Bidaurre	Alanbrada

	Aziendarako tratamendu- eskorta	– Orbaitzeta	Larreak hobetzea
– Iturgoien	Bi borda	** Oteitza	Larreak hobetzea
	Parrila bat	** Petilla de Aragón	Larreak hobetzea
	Ataka bat	– Erronkaribar	
	Pista bat	– Burgi	Aska Itxitura e.a.
– Girgillano		– Garde	Askak e.a.
– Girgillano	Aintzirak (Hobetzea)	– Erronkari	Askak
– Labaien	Larreak sortzea	– Uztarroze	Errepidea (Egokitzea) Aska e.a.
– Lana		– Zaraitzu	
– Galbarra	Hesiak	– Ezkaroze	Larreak hobetzea
	Aintzira	** Jaitz	Mugako tartea Alanbrada (Zaharberritzea)
	Itxitura	– Ultzama	
– Biloría	Bidea konpontzea	– Eltso	Larreak hobetzea
	Aintzira	– Urraul Goiti	
	Artadia garbitzea	– Aietxu	Larreak, errotulazioa e.a.
– Lerga	Ereitea, hesiak jartzea	– Valtierra	Larreak hobetzea
– Lezaun	Larreak hobetzea	– Hiriberri	
** Irunberri	Belardia sortzea	– Aezkoa-Hiriberri	Larreak hobetzea
– Lukin	Larreak hobetzea	– Deierri	
– Mendaza		– Arandigoien	Larreak hobetzea
– ** Asarta	Aintzira	– Aritzaleta	Larreak hobetzea
	Aska	– Azkona	Larreak hobetzea
– Mendaza	Larreak hobetzea	– Bearin	Larreak hobetzea
– Metauten		– Eraul	Larreak hobetzea Aintzira plastikoz hornitzea
– Ganutza	Aintzirak	– Goroziain	Itxitura
	Askak		Askak
– Murieta	Aintzira	– Iruñela	Larreak hobetzea
– Nabaskoze		– Murugarren	Larreak hobetzea
– Aizpurgi	Itxitura	– Errezu	Larreak hobetzea
	Alanbradak	– Zubieta	Larreak hobetzea
	Ereitea	** Zuñiga	Itxitura Aintzirak: – ubideak egitea, – iragazkaitzea
– Nabaskoze	Larreak hobetzea		
– Ustaize	Ereitea Aintzira		
– Odieta			
– Gaskue	Aintzirak e.a.		
– Olaibar			
– Olaitz	Itxitura		
– Oloritz			
– Etxague	Larreak hobetzea		
– Ollaran			
– Anotz	Aska, itxitura		
– Arteta	Itxitura		
– Beasoain	Aintzira		
– Egillor	Ixteak eta abar		
– Iltzarbe	Aintzira, Hesia, sarbideak		
– Ollaran	Aintzirak		
– Saldise	Alanbrada, e.a.		
– Senosiain	Aintzira, alanbrada		
– Ultzurrún	Sastraka kentzea		

** 97-04-30 baino beranduago jasoak

2 Helburuko Eskualdea

Larre Bulegoan jaso diren eskabideak, 1996ko abendura arte aurkeztutakoak berresten edo aldatzen dituztenak.

Izena	Gaia
– Abaigar	Aska Aintzira
– Antsoain	
– ** Añezkar eta Oteitza	Larreak hobetzea
– Araitz	

– Arribe - Atallu Larreak hobetzea
 – Egues
 – Ibiriku Larreak hobetzea
 – Ergoiena
 – Unanu Larreak hobetzea
 Itxitura
 – Itza
 ** Atondo Itxitura
 – Eritze Itxitura
 Aska
 – Larunbe Itxitura
 ** Saratsa Itxitura
 – Xulapain

– Beorburu Biltegia
 – Markelain Larreak hobetzea
 – Otsakar Itxitura
 – Lakuntza Itxitura
 – Lakuntza
 – Aralarko Batasuna Larreak hobetzea
 Aska (Sendotzea)
 Itxitura
 – Larraun Larreak hobetzea
 – Olazti Belardiak
 – Urrotz Larreak hobetzea

** 97-04-30a baino beranduago jasoak.

Dagokion proiektua egiten ez den bitartean ezin da inbertsioa ebaluatu.

“Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea” lerroaren aurrekontu-burutzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea” lerroaren aurrekontu-burutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babespean, “Nekazaritza ustiategien eraginkortasuna hobetzea” lerroaren aurrekontu-burutzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. “Nekazaritza ustiategien hobetzea” aurrekontu lerroko baimendutako gastua 1.340.000.000 pezetakoa da. Gastu horretatik, 716.092.095 pta. 579 espedienteri dagozkie, eta 1996ko ekitalditik eta aurrekoetatik aginduta daude.

1997. urteko agindutakoa 327.505.065 pta. da, eta 301 espedienteri dagokie.

1998rako 1996. urteko eta beste urte batzuetako agindutakoa 5.780.191 pta.koa da eta 11 espedienteri dagokie.

1998rako 1997ko agindutakoa 427.728.120 pta.koa da eta 261 espedienteri dagokie.

1999. urterako 1997ko agindutakoa 7.006.102 pta.koa da eta 13 espedienteri dagokie.

2. 1997ko maiatzaren 2an ebazteko dauden espedienteak 1.186 dira.

Aurreikusi den inbertsioa, 1996ko batezbesteko balorazioaren arabera, 3.528.144.135 pta. da.

1997. urterako aurreikusi den dirulaguntza 922.017.764 pta. da.

1998. urterako aurreikusi den dirulaguntza 1.033.891.592 pta. da.

1999. urterako aurreikusi den dirulaguntza 16.719.430 pta. da.

3. Inbertsioaren amaierako ebazpena eta ziurtagiria duten espediente guztiak ordainduta edo ordaintzeko prozesuan daude. Prozesu honen iraupena hilabete ingurukoa da.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

Alesbes herrian kokatutako “Las Navas” lekuaren egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak Alesbes herrian kokatutako “Las Navas” lekuaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Andrés Basterra Layana, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, Alesbes herrian kokatutako Las Navas lekuaren egoerari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak adierazten du:

Galderaren puntu zehatzei erantzun baino lehen uste dut galderaren aurrekoetan egindako iruzkin batzuk argitu behar direla:

Aipatu testuan adierazten da eskualdeko proiektua idazteko orduan ez zela aurreikusi hainbeste arazo ematen dituen alderdi hartako ureztatzearen ur sobranteak drenatzeko sistema bat egitea, eta horrelako baieztapen behin betiko eta borobil batek ez du aldean halakorik dioen inongo txosten teknikorik. Beste aldetik, argitu behar da putzu-arazoak dituen alderdia geologikoki mendiarte beheratu bat dela, inguruetakoen aldean, eta margazko materiala eta igeltsuzko osagaiak dituen sustratu bat duela. Sakonune horrek ez du irtenbide naturalik, hain zuzen ere arestian aipatu den beherapenaren osaketagatik. Gainera ur hori ateratzearen arazoa are zailagoa da Alesbes ondoan lubetan egindako bide bat dagoelako.

Era berean, saiatu behar da zehatz-mehatz aztertzen zein arazoirengatik izaten den ur ekarpen hori topografikoki beheratutako alderdi horretan. Era berean, aztertzea da ere Barranco de Agua Salada (650 Ha.) eta Morante (1.005 Ha.) Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietateek (E.N.S.k) dituzten ureztalurrak elkargainka egoteak duen garrantzia. Honako hauek dira eman beharreko argibideak:

A.- 1996ko abenduko eta 1997ko urtarrileko aparteko euriek sortu duten ekarpena.

B.- Baliteke aurreko kanpainetan egindako ureztaketek sortutako drenaje atzeratuak eskualde horren maila freatikoaren igoera ekarri izana.

C.- Baliteke ureztatzeko ura gaizki erabiltzearen ondorioz, azaleko fluxuak nahigabe isurketa bidezko ekarpena egitea.

D.- Ohiko ureztaketarako ubideen mozketen ekarpenengatik gertaturiko balizko gainkargak.

E.- Arazoa zailtzen lagundu duten bestelako ekarpen zehazkaitzak.

Litekeena da ondorioa emandako arrazoen konbinaketa lineal bat izatea, baina zaila da bakoitzaren ekarpena portzentaletan ematea.

Nafarroako Gobernuaren geologia zerbitzuak lanean ari dira ekarpen horien portzentaia zehazteko.

Orain, galderen erantzunak emanen ditut egin ziren hurrenkera berean:

1. “Riegos de Navarra S.A.”ren bitartez jakin dugu Las Navas-en ur pilaketa bat gertatu dela, baina bertako jendeak esanda gauza jakina da ur pilaketa hori alderdi hori ureztalurrak bihurtu baino are lehenago ere gertatzen zela.

2. 3. eta 4. 1992tik saio batzuk egin dira historikoki gaizki drenatutako lurralde horren saneamenduari irtenbide bat bilatzeko. Horretarako Alesbesko Regadio Viejo alderdian lurzati antolamendua egitea proposatu zen eta egin beharreko lanen artean saneamendurako lanak burutzea sartu zen. Ildo horretatik, 1992 urtean, “Alesbesko ureztalurren lurzati antolamendua burutzeko ubideen sarearen aurretiko diseinua” izeneko lana egin zen. Urte hartan bertan eta 1995 urtean bi asanblada orokor egin ziren lurzati jabeekin, eta bukatu zen lurzati antolamendua onartzeko eta lanak finantzatzeko sinaduren bilketa, eta hainbat hitzaldi eta bilera egin ziren Ureztaketa Sindikatuko ordezkariekin. Bidean, azterlan teknikoak egin dira ura ateratzearen kostuak eta ahalmena zehazteko.

5. Aipatu lan horiek burutzeko beharrezkoa da eskualde horretan lurzati antolamenduari akordio irmoa egotea; hala ez bada, lurzati antolamenduari buruzko dekretuak onetsita egon behar du. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua prest dago, berriz ere, Regadio Viejo ize-

neko alderdiaren lurzati antolamentua sustatzeko, horixe baita "drenaje natural" eskasaren arazoaren irtenbiderako arrazoizko formula bat bilatzeko modu bakarra, beti ere Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko 18/94 Foru Legearen esparruan.

6. Lanen balorazio ekonomikoa lurzati antolamendua eta lehenagoko urrezaketak sistema berrietzeko lanak burutzeko idatzi behar den lanen plangintzan ezarri beharko litzateke. Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko Legearen 97 eta 98. artikuluetan lan mota bakoitzerako finantzazioa aipatzen da berariaz.

7. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren jarduna, lurretako lan eta hobekuntzei dagokienez, arestian aipatu den

Legeak xedatutakoaren barrenean kokatu behar da, eta ez du zertan izan behar ukitutakoek "Riegos de Navarra S.A."ri edo haren lanen zuzendaritari gertaera natural baten erantzukizuna egotzi nahi izatearen ondorioa, hain zuzen ere, arazo hori lehenagotik –are "Barranco de Agua Salada" urrezkalur bihurtu baino lehenago ere– behin eta berriz gertatu izan delako.

8., 9. Lanak egiteko epeak auzoek lurzati antolamendua eskatzeko daukaten borondatearen eta lan horiek burutzeko azkartasunaren arabera izanen dira.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria, Ignacio Martínez Alfaro

Talde baztertuak kudeatzen dituzten enpresekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak talde baztertuak kudeatzen dituzten enpresekin izenpeturiko hitzarmenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari andreak itunen sistemaren aplikazioari buruz egindako galdera dela eta, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak ondoko erantzuna bidaltzen dizu:

1. Itun bakoitzaren egungo egoera.

Galderak aipatzen dituen itunak, Kontuen Ganbarak bere txostenean aipatzen dituenak direla ulertzen da. Hona horien egoera 1997ko maiatzaren:

Gesna. Ituna deuseztuta dago 1996ko maiatzaren 15etik.

Onartu. Ituna deuseztuta dago 1995eko urtariletik.

SOS Leyre. Ituna deuseztuta dago 1996ko irailaren 15etik.

Agedna. Auzitegi Gorenak ebazpen judiziala noiz eman zain dago.

Aspace. Baldintza tekniko berriak egiten ari dira.

Servirecord. Egoera normalizatu eta legeztatua. Ez dago inongo arazorik.

Prosna. Egun Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak interbenitu du, administratiboki, haren funtzionamendua bermatzeko eta behin betiko irtenbide bat aurkitzeko egon daitezkeen alternatibak bilatzeko.

2. Bakoitzean burututako jarduketak eta zioak.

Enpresa horiek bete ez dituztenez Nafarroako Gizarte Ongizateko Institutuarekin izenpetuak zituzten itunetako baldintza tekniko nahiz administratiboak, ez-betetze horiek egindako enpresekin izenpetutako itunak deusezteari ekin zitzaion.

3. Administrazioak kasu bakoitzean erabili dituen irizpideak neurri ezberdinak hartzeko

orduan (suntsiarazpena, luzapena, eta abar) eta gertaeratik erabakira arte igaro den denbora.

Itunak suntsiarazteak, adierazi den bezala, kontratisten ez-betetzeetatik heldu dira, eta horregatik kontratua suntsiarazteko izapideari ekin zitzaionetik entitate horiek zerbitzua ematen jarraitu zuten esleipen berria egin arte.

Esleipen berria egin arte igaro den denbora ondokoaren arabera izan da: kasuan kasuko burutzapen proiektuak burutzen eman den denbora, proposamenak legez aurkezteko behar den denbora eta esleipena aztertu eta proposatzeko behar den denbora. Aldi hori sei hilabete ingurukoa izaten da.

4. Izapidatzen ari diren espedienteak noiz suntsiarazteko asmoa dagoen.

Izapidean egoteagatik galderaren gai diren bi espediente baizik ez daude gaur egun.

Bata Agednarena da, eta azaldu den bezala, ebazpen judiziala eman zain dago, beraz epe hori ez dago Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren esku; bestea Prosnarena da, eta irtenbide bat eman nahi zaio urte honetan zehar.

5. Beste esleipen bat gertatu denean, horretarako erabili den esleipen-sistema.

Esleipen berrien kasuan erabili den esleipen-sistema prozedura irekia lehiaketa publikoaren bidez izenekoia izan da.

6. Gobernuak ezarri dituen edo ezarri nahi dituen kontrolak, esleipendunek behar bezalako kudeaketa egokia egiten dutela ziurtatzearen.

Ikuskapenen etengabeko programa bat egiteaz gain ezarri diren kontrolak, hain zuzen ere, itun berrien klausula administratiboan orri berrietan azaltzen direnak, ondokoak dira:

- Esperientzia dutela bermatu behar izatea.
- Gutxienez 10.000.000 pta.ko kapitala dutela bermatzea, bestela lanbide-arriskuengatik 50.000.000 pta.ko indemnizazio-asegurua.
- Itunaren iraupena urtebetekoa izan dena.
- Esleipen prezioaren % 8ko fidantza.

- Enpresarien eta zuzendarien ikasketa tituluak eta lanbide tituluak bermatzea.

- Plantilan diren langileekiko betebeharrak betetzen direneko egiaztagiriak bidaltzea hileror.

- Urteko kontuak, Kontabilitate Plan Orokorren arauen arabera.

- Oroit-idazki ekonomikoa, ondokoak zehaztuko dituen: ustiaketa kontua, haren bilakaera eta aldaketak, beti ere ondare-egoera eta egoera finantzarioa azalduz.

- Langileen ratioei eta azpikontratatzeko diren zerbitzuei buruzko argibideak.

- Urteko absentismoaren indizeen gaineko argibideak.

- Langile independente baten auditoretza-txostena.

- Inbentarioko alta eta baje zerrenda.

- Derrigortutako fondo berekiak mantendu beharra eta onuren % 20rekin erreserba-fondo bat sortu beharra.

7. Emaitzak ikusita, Gobernuak asmorik ote duen itunen politika horrekin aurrera egiteko.

Itunen kudeaketa kontrolatzeko arazoak gertatu izateak ez du esan nahi itun horien emaitza negatiboa izan denik edo sistema hori utzi behar denik, hain zuzen ere, kudeaketa eta emaitzak oso positiboak izan direlako.

Beste aldetik, itun berrietan sartutako neurriek kudeaketa egokia bermatzen dute, Nafarroako Kontuen Ganbarak adierazten duen bezala, eta gertatu diren egoera horiek saihesteko balio izaten dute. Horrela araugabekeriak azkarrago antzemanen daitezke; gainera, urtebeteko iraupena duten kontratuak izatean ez dago modurik gertatu direnak berriz gertatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria, Calixto Ayesa Dianda

Atarrabiako nekazaritza laborategiak 1996an buruturiko analisi-lanari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Atarrabiako nekazaritza laborategiak 1996an buruturiko analisi-lanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoaren babesean, "Atarrabiako nekazaritza laborategiak 1996an buruturiko analisi-lanari" buruz egindako galdera dela eta, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak adierazten du:

1. eta 2. Landare Biologiaren Bulegoa.

	1994 urtea	1995 urtea	1996 urtea
Laginak	16.077	25.242	11.660
Analisiak	39.665	69.701	52.940

Analisi Instrumentaleko Bulegoa

	1994 urtea	1995 urtea	1996 urtea
Laginak	2.157	2.445	2.203
Analisiak	16.083	21.125	21.656

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa.

	1994 urtea	1995 urtea	1996 urtea
Laginak	228.307	249.199	406.698
Analisiak	432.874	443.741	620.361

3. Landare Biologiaren Bulegoa (1996)

	Laginak Analisisiak	
I.T.G. Agrícola	454	1.609
Opposa	6	512

Planasa	101	426
Landare Osasuneko Bulegoa	3.417	24.182
Hazien Bulegoa	720	2.287
Proiektu Bulegoa	8	17
Evena	6.904	21.216
Laborategia	50	2.691

Analisi Instrumentaleko Bulegoa (1996)

	Laginak Analisisiak	
Pribatuak	88	999
Publikoak	2.115	20.657
Nekazaritza Egiturak	424	3.929
Ekonomi eta Ogasuna	16	16
Ingurugiroa	2	34
Riegos de Navarra	3	36
Patxaranaren Jat. Izendapena	238	714
Viveros y Repoblaciones	2	16
Bideko Ama Birjina Ospitalea	36	36
Osasun Publikoa	17	85
Nafarroako Ospitalea	1	Txostena
Nekazaritza Ekologikoa	24	700
Animalien Hondakineterako Plan Nazionala	393	2.503
Landareen Hondakineterako Plan Nazionala	246	6.550
I.T.G. Agrícola	221	1.781
I.T.G. del Vacuno	282	1.510
I.T.G. del Porcino	12	48
Herrilanak	167	2.625
Departamentua	1	47
Unibersitate Publikoa	27	27
Goardia Zibila	3	Txostena

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa

Saneamendu kanpainak baizik ez dira eginen.

4. Landare Biologiaren Bulegoa (1996)

Ernetzea	1196 zehaztapen
Garbitasuna	711 zehaztapen
Zenbaketa	725 zehaztapen
Kuskula	16 zehaztapen
Mila aleren pisua	8 zehaztapen

Landare-zorriak	6 zehaztapen
Nematodoak	21 zehaztapen
Onddoak	109 zehaztapen
Bakteriak	708 zehaztapen
Birusak	49.437 zehaztapen
Besterik	3 zehaztapen

Analisi Instrumentaleko Bulegoa (1996)

Laginak Analisisiak

Landareen Hondakinatarako Plan Nazionala	246	6.550
Animalien Hondakinatarako Plan Nazionala	393	2.503
Ura	659	7.348
Bestelako hondakinak	905	5.255

Analisiak hondakin eta uretan baizik ez dira egiten; ez da lur, ongarri, elikagai edo antzekorik aztertzen.

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa (1996)

Abereen saneamenduan baizik ez

Behiak	80.047
Ardiak	309.119
Ahuntzak	4.490
Zerriak	13.042

5. Landare Biologiaren Bulegoa (1996)

Dirusarrerak

Planasa	238.000-, pta.
I.T.G. Agrícola	26.650-, pta.
Guztira	264.650-, pta.

Analisi Instrumentaleko Bulegoa (1996)

Dirusarrerak

Partikularrak	126.700-, pta.
I.T.G. Agrícola	10.000-, pta.
Guztira	136.700-, pta.

Abeltzaintzako Laborategiaren Bulegoa (1996)

Ez da dirusarrerarik izan kanpaina ofizialak izan zirelako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kon-tseilaria, Ignacio Martínez Alfaro



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa Hiria

P. K. Probintzia

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--